

Amasa-Villabona... Bai iragan ona!

LUMIANG

*Jai egunetako
ohiturak*

18 zbk.

2006ko ekainaren 4a



Uxamendiko Joxe Arruti 'Melu', Arriako Inazio Artola eta Ipurzabaleko Joxe Aiañtu, Seroetxeren atarian.

JAI EGUNETAKO OHITURAK

A tzera jauzi eginez, igandea noiz iritsiko zain egoten ziren *lumanetarrak*. Jai egunetan lan egitea debekatuta egonagatik, batzuetan debekua baztertu eta igandez ere lan egin beharra egokitzen zitzairen gazte haiei. Lanaz gain,

denbora librea ere orduantxe izaten zuten. Nola igarotzen ote zuten, bada, egun hura? Pausoz pauso kontaktu dute hizlariak; goizean goizetik hasita, gainera! Jai egunari ekiteko, mezetara lehenik. Gero-gerokoak...

DEBEKATUTA IGANDEZ LAN EGITEA

Lumanetarrak gaztetxo ziren garaian ez zen jai egun handirik izaten, "larunbatetan ere lana tokatzen zen, normal-normal. Batzuek jai goizetan ere lanera joan behar izaten zuten". Lan motak bazuen eraginik horretan, noski. Pello perratzalea zen eta perrategia itxita edukiagatik, lana egokitzen zitzairen askotan. "Baserrietara joaten ginen; animalia bat herrena zegoela, bestea minduta...". Papertegietan bereziki, ez zen eten handirik egiten orduan. "Makinak igande goizeko seietan geratzen ziren eta astelehenako prestatzen zituzten mekanikoek. Bai, oro har, igandeak erreparazioarako eta txukuntetarako izaten ziren, baina gu ere zenbat eta zenbat igandetean joan ote ginen lanera?" gogoratu du Salvadoran lan egin zuen Pakok.

Urteek aurrera egin ahala, larunbat arratsaldean libratzeko ordu bete gehiago egiten zuten lan astean zehar, "goizean ordu erdi bat eta arratsaldean beste ordu erdi bat. Orduan 'sábado español' esaten genion horri; berez, 'sábado inglés' zen ezaguna, baina haiek, astean zehar ordu sartu gabe egiten zuten jai larunbatean".

Igande eta jai egunetan baserrietan lan egitea ez zegoen batere ondo ikusita, "ezta jostorrazta hartzea ere!", gaineratu du Maria Luisak. "Amasako on Jose apaizari ez zitzaion gustatzen inor jai egunez soraoan edo baratzetan lanean ikustea. Ia denek errespetatzen



Maritxu Gonzalez

"Udaletxeari igandean lan egiteko baimena eskatu behar izaten zitzaion"

zuten ohitura hura, gutxien-gutxiengoa aritzen zen lanean. "Tomax 'periodistak', alkate zegoela, ez al zion baserrietan bati isuna jarri belar biltzen-edo lan egin zuelako?", galdetu du Pellok. "Udaletxeari igandean lan egiteko baimena eskatu behar izaten zitzaion" erantzun du Maritxuk. "Bai, bai; halaxe zen" ziurtatu dute gainerakoek.

Jai egunetan lan egitea gaizki ikusita zegoen, bai. Zergatia? Ebanjelioak hala esaten zuelako. "Biblian pasarte ezberdinak ageri dira: Horietako batean Lazaroren pizkunda ageri da. Lazaro hil eta gero, larunbat batez, piztu egin zuen Jesusek. Gertaera haren ondorioz, larunbata jai eguntzat hartu zen. Gerora, igandera aldatu zen". Itun Berriko beste pasarte bat ere aipatu dute hizlariak, "Jainkoak, zazpi eguneko astea osatu zuen mundua egin zuenean. Sei egun lanerako eta bat deskantsurako. Deskantsu egunean ezin zitekeen, beraz, lanik egin". Pasarte haiek oso kontuan

hartzen ziren, "oso gogorra zen eliza gai horrekin", halaxe uste dute behintzat gaurko partaideek. "Jostea, puntua egitea edo gantxilloa egitea ere debekatuta zegoen. Agirian behintzat ezin zen aritu".

Horrenbeste debekuren aurrean, dendek ateak zabalik izaten zituzten jai egunetan, "goizez behinik behin, irekita egoten ziren dendak. Nik gogoan dut Martziel Inurritza esaterako; hura dendaria zen oso. Kafek berak erretzen zituen, argizaria berak egiten zuen... Lan guztiak etxean egiten zituen hark. Mezetara etortzen zen jende asko geratzen zitzaion bueltakoan" azaldu du Pellok. "Txokolonean ere biltzen zen jendea. Bai, bai, dendak zabalik egoten ziren igande goizetan", zehaztu du Maritxuk.

Igandea deskantsurako jai eguna zenez, noiz iritsiko zain-zain egoten ziren *lumanetarrak*. "Dudarik gabe. Gustura hartzen genuen igandea. Hala ere, astean zehar pilatzen ziren lanak egiteko ere askotan aprobetxatzen genuen". Batzuek bekatu egitearen zama izaten zuten gainean, "ahal bazen, iganderako lanik ez uzten ahalegintzen ginen. Baserriko lanetarako, eguraldiak zeresan handia zuen eta belarrarekin edo egurrarekin lan egin behar zenean, askok ez zuten gehiegi begiratzen igandea ote zen. Gainera, astegunez, etxetik kanpora lan egiten zenez, ez zegoen askoz aukera gehiagorik. Beraz, egin eta kito!"

IGANDEAN, TXISTU HOTSA IRATZARGAILU

Hizlariak, igande goiz alaiak gogoratzen dituzte, "Villabonan igande goizero izaten zen txistularien diana. Plazatik abiatu eta Kale Nagusia nahiz Kaleberria igarotzen zituzten". Oraindik ere ohitura horri eusten zaio tarteka, "igandero ez baina, jai egun

berezietan, oraindik ere ibilbide bera egiten dute txistulariek". Garai hartan bazen beste tradizio bat ere, "diru pixka bat zuenari, urtebetetze egunean ezkaratzen txistua jotzen zitzaion zoriontzeko", aipatu du Joxek. Pellok gogoan du Izkinako Silvestreren

kasua, "Izkiñako Silvestre difuntuari, San Silvestre urtezahar egunean, urtero jotzen zioten txistua txistulariak etorrira". Izkiñako tabernariak ondo zaintzen zituen bezeroak, "Silvestrek debalde ematen zuen bere eguna, urteko azken eguna". "Bai, eta txistulariei

eskupekoa ematen zien". Lehen-lehenik Patxiku Laskurain eta Ixio Iribarren txistulariek egiten zuten kaleko erronda. Martin Laskurain, *Lumaneko* kidea, aitarekin batera hasi zen txistua jotzen, "gerora, Martin Laskurainek, Juanito Gurrutxagak eta Ixio Iribarrenek osatu zuten taldea". Antzinan, Roberto Garateren aitona ere ibilia zela aipatu genuen musikaz hitz egin genuen aldizkarian, "eskuz egin zuen hiru gupileko egurrezko bizikletan etortzen zen Jose Elola Albizurtik Villabonara". Goizean goiz, zortziak eta erdietan abiatzen ziren txistulariak dianan; "alfer jendea esnatu eta elizara joan zitezten", argitu du Joxek. Solaskideek

diotenez, jai eguna izanagatik, gehiengo nagusia ordu horretarako jaikita egoten zen. "Zortziak arte ohean garai hartan? Nekez. Gaez gaur baino lehenago oheratzen ginen normalean, eta ondorioz, altxa ere, lehenago altxatzen ginen". Telebistatik edo irratiak ez egoteak eragiten zuela hori uste dute hizlariak. "Tabernak eta elkarateak ere baziren. Guzti-guztiak ez ginen hain goiz erretiratu baina, goizean jaiki..., bai azkar!", gehitu du Joxek.

Igande goizetako dianara itzulita, alai hartzen zituzten doinu goiztiarrak herritarrek, "edade hartan? Poz handia ematen zuen", aitortu du Maritxuk. "Txistulariak,

Samartinetan izan ezik, ez ziren Amasara igotzen. Jaietan bai, baserri baserri ibiltzen ziren". Villabonako kale nagusiak inguratzen zituzten igande goizetako dianan, zortziko eta kalejirak jotzen zituzten txistulariek.



Joxe Ugartemendia

"Tabernak eta elkarateak ere baziren. Guzti-guztiak ez ginen hain goiz erretiratu baina, goizean jaiki..., bai azkar!"



Santio jaietan txistulariak Villabonako kaleak zeharkatzen.



IGANDEKO MEZA, SAKRATUA

Igandetean mezak aukeran izaten ziren: Amasan, 08:00etan lehenengoa eta 10:00etan meza nagusia. Villabonan, 06:00etan lehenengoa, 08:00etan bigarrena eta 10:00etan meza nagusia. "Gerora 06:00etako meza kendu eta 06:30etan jarri zuten, 08:00etako mezarik izaten ez zenean, 09:00etan izaten zen". Villabonan lau apaiz zaudenez, txandaka ematen zituzten mezak, "goizetako meza, normalean, on Romanek ematen zuen. On Salvador, on Juan eta on Mateo apaizek ematen zituzten gainerako mezak. Meza nagusia parrokoaren lana izaten zen, on Epifaniorena".

Goizetako seietako mezetara nor joaten ote zen galdetu diegu harritu samar solaskideei. Orduan ez zen harritzeko kontua, meza nagusira baino askoz ere jende gehiago gerturatzen baitzen goizean goizetako mezetara. "Meza nagusira diru pixka bat zutenak eta hil-berrien familiakoak joaten ziren. Difuntuen oroimenez, kandelak pizten baitziren denbora tarte batean. Haiexek, gainerakoak; inor gutxi". Meza nagusira ez baina goizean goizetako mezetara joaten zen

gehiengoa, beraz. "Goizetako mezetara joan eta goiza aprobetxatzeko aukera izaten genuen modu horretan. Ondorioz, etxean lanean aritu behar zuena edo mendira joatekoa zena, seietako mezetara etortzen zen lehenengo". Oro har, meza entzun gabe inor ez zen inora joaten, "igandean arrazoiren batengatik elizara joaten ez baginen, arratsaldean kalera ere ez!" azaldu du Maria Luisak. "Gaur baino txikiagoa zen herria eta a ze kontrola! Apaiza berehalakoan konturatzen zen mezetara nor faltatzen zuen. Igandetako meza obligazioa zen" gaineratu du Joxek. Aurreko zenbakiren batean aipatu genuenez, igandetean, goizetako meza eta gero bezperetara joaten ziren arratsaldean. "Gizonezkoak ez denak, baina bai gu, emakumezkoak, Amasan" azaldu du Maritxuk.

Oro har, bakoitza bere herriko elizara joaten zen mezetara, "batzuetan amasarrak Villabonako elizara edo alderantziz; villabonatarrek Amasakora ere etortzen ziren. Amasarra Villabonara jaisten zenean, lehen mezetara joateagatik jaisten zen, Amasan

ez baitzen goizetako 06:00etan funtziorik izaten. Villabonatik Amasara ere bat baino gehiago joaten zen; kantatzera-eta. Orain baino gehiago!". Apaizak eta monagilloak ere txandakatu egiten ziren gora eta behera, "on Epifanio erretorea zenez, Amasan jaunartzeak zirenean, esaterako, bera igotzen zen meza ematera".

Meza ordubetekoak izaten zen gutxi gora-behera, latinez. "ez genuen tutik ere ulertzen" aipatu du Joxek eta Maria Luisak misala ekarri du gogora. "Emakume gehienek misala erabiltzen genuen, apaizaren esanak jarraitu ahal izateko". Apaizek ez zuten denborarik alferrik galtzen mezetan,



Maria Luisa Zalakain

"Igandean arrazoiren batengatik elizara joaten ez baginen, arratsaldean kalera ere ez!"

“askotan apaiz batek meza eta besteak sermoia ematen zuen. Bai, denbora berean”. Pepitak Andoaingo *Napartalorekin* izandako elkarrizketa ekarri du mahaira. “Ez dakit nola aterako zen kontua baina, - ‘Katolikoa al zara’, galdetu zidan behin *Napartalok*, eta nik baietz. - ‘Igandero joaten al zara mezetara?’, - ‘zu ez baino ni bai’, esan nion. - ‘Orain esaidazu ba, zenbat buelta oso eta zenbat buelta erdi ematen ditu apaizak meza ematerakoan?’”. -Gustura egin dute barre gainerako partaideek-. “Hark erakutsi zidan *Orate fratres* (anai-arrebok otoi) esaten zuenean, buelta osoa ematen zuela eta *Dominus vobiscum* (Jauna zuekin) esaten zuenean, buelta erdia”. Hainbatek meza korutik entzuten zuela esan du Joxek, “koruan jartzen zirenetako asko, erdiak baina gehiago, zigarroa erretzera igotzen zen kanpandorrera mezak aurrera egiten zuen heinean”. Mutilak gazterik hasten ziren erretzen, halaxe aitortu du Joxek: “nik hamabi/hamairu urterekin probatu nuen lehen aldiz



Villabonako neska gazteak eliz-barrutiaren irekieran, 1952 urtean.

tabakoa. Garai bateko erloju handiaren barruan gordetzen nuen paketea”. Tabakoaz gain, arto-bizarrak ere erretzen zituzten.

Neskak, oro har, geroago hasten ziren, “arto-bizarrekin eta, pruebak egiten ibili ginen, bai, bai” esan du Maritxuk.

ARROPA HOBERENA, IGANDERAKO



Pepita Lasa

“Lokatza zenean, abarkak edo katiuskak jantzi eta, eskuan zapatak hartuta joaten ginen elizara”

Bakoitzak zeukan aukeraren arabera, baina zuten arroparik dotoreena jantzita joaten ziren mezetara, “ahal zen arroparik hobereena jantzen genuen igandean. Baldin bazen, bakarria izaten zen. Ez zen aukerarik

izaten, inondik ere ez”. Baserrietatik elizara jaisten zirenak eskuan zapatak hartuta jaisten ziren, “lokatza zenean, abarkak edo katiuskak jantzi eta, eskuan zapatak hartuta joaten ginen elizara”. Pepitak Pasu baserrietik jaisten zirenean, ondo gogoan du nola Otsabiko Olatxo baserriaren ondoan uzten zituzten abarkak edo katiuskak, inork lapurtzeko beldurrik gabe, itzuleran berriz ere janzteko. “Igandeko arropa eta oinetako zikinekin nola joango ginen ba elizara?”.

Mezetara igandeko arroparekin jantzita joanagatik, etxeratzean hura erantzeta izaten zen lehen eginbharra, “gure etxean ez ziguten jaietako arroparekin egoten uzten”

aipatu du Pepitak eta, gainerako etxeetan ere halaxe zela aitortu dute besteek. Kasu gehienetan, igande arratsalde ez zuten arropa hura jantzen, mezetarako bakarrik erabiltzen zuten jantzi dotoreena. “Igandeko mezetarako edo bestelako elizkizunen baterako gordetzen genituen: entierroetarako eta”.

Maria Luisak, ohitura hari eusten diola azaldu du, “nik oraindik ere, meza nagusirako daukadan arroparik onena jantziko dut. Baina arratsaldean, ez naiz harekin aterako lagun artera”. Arratsaldean aldatu edo ez, egun ere, taldekide guztiek badute igandetako arropa, “txukunxeagoa-edo”.

MEZA ETA GERO, APERITIBOA?

Amasan elizatik atera eta Seroetxera edo Serapianera joaten ziren gizonak baso-erdiren batzuk hartzera. “Fotografian hortxe daude edadeko hiru gizon Seroetxeko atarian ardoa edaten”. Villabonan, elizkizuna bukatu eta gero, baso-erdiak hartzera joateko hainbesteko ohiturarik ez zegoela aipatu dute hizlariak, “sosarik ez zen eta! Mutil gazteak ez baina helduagoak, batzuk

joaten ziren; salda, haragi egosia edo txorixo muturren bat hartzen zuten bazkaldu aurretik, baso-erdiak bultzatuta. Batzuetan uretan pasatako arrautza izaten zen hamaiketako moduan”. Hori bai, aperitiboa hartzera joaten ziren guztiak gizonak ziren; emakumeak zuzenean etxera. Villabonan, ohitura seguruenik osasungarriagoa zegoen zabalduta meza ondorenean, “meza buka-



Pako Etxenike

“Meza bukatu eta plazara joaten ginen korrika batean, pilotan jolastera”

tu eta plazara joaten ginen korrika batean, pilotan jolastera. Horrenbeste jenderen artean, txandaka jolasten genuen. Dena beteta egoten zen; frontoia, errebota, motxa... Bi tanto egin eta hurrengoari uzten zitzaion lekua. Mutil kokorak ez ezik, gazteak ere hantxe biltzen ziren; hogei

urtekoak eta baita gehiagokoak ere!” adierazi du Pakok.


Aipatu dugunez eta emakumearen garai hartako papera kontuan hartuta, emakume gehienak bazkaria prestatzera joaten ziren etxera elizatik atera eta zuzenean. Baina orduan ere, salbuespenak bazirela aipatu du

AMASAN, BANDOAK IGANDE GOIZETAN

Esana dugu *lumanetarrak* gaztetxo ziren garaian, Pio aguazilak ematen zituela bandoak; Luzianok geroago. Villabonan, igandean baino gehiago, asteazken zehar ematen zituen bandoak. “Puntu ezberdinak zituen, lau toki behintzat bai; Izkiñako hori zen haietako puntu bat. Danborra jo, *pppppppppppppppp*, eta udaletxetik bidalitako mezua irakurtzen zuen Piok”. Amasan, berriz, meza ondorengo tartea hartzen zuen udaletxeko mezuak zabaltzeko, “asteazken zehar ez zen aguazila Amasako baserrietara joaten, ondorioz, igandetan, goizeko meza-oren ondoren, plazan jende multzoa biltzen zenean ematen zituen bandoak. Etxe bakoitzetik mezua zabaltzeko bat edo beste izango zen eta...”.

Elizaren ingurura beste irudi bat ere gerturatzen zen jai egunetan, “bertso-paper saltzailea askotan etortzen zen. Bertsoak kantatu egiten zituen lehenik eta, nahi zuenari, paperak saldu

ere bai”. Saltzaile haiek, bertsolariak baino, bertsolariaren lagunak-edo izango zirela aipatu du Joxek, eta Pellok, “hura kantatuko bazen, arte pixka bat ere behar zen” erantzun dio. Paperean, makinaz idatzita ekartzen zituzten bertsoak. “Gure gazte denboran Mendaro Txirristaka etortzen zen askotan. Nahastuan kantatzen zuen; erdia gaztelaniaz eta erdia euskaraz. Berak prestatzen zituen bertsoak eta Tolosako ferietan eta inguruko herri guztietan ibiltzen zen”. Bertso ezagunak bazituela aipatu dute, “Bai, bai; astoarenak oso ezagunak ziren: *Asto gaixua malkos tiraba cuando murió*”.



Antzina-antzinako bertso paperen liburuxka.

ASTO GAXUA

-1-
Al ikullu ya no vuelve mi buen astua, no vuelve no; ya no brinca de poxa cuando cabeza tocar alguno; arrayua suerte txarra con tripako miña poner hizo. Biotzeko asto gaxua malkos tiraba cuando murió.

-2-
Y agora te hace dos años juxtu juxtuak ayer cumplió que las tripako miñas al pobre burro le agarró, con su arrantza fuerte una noche me despertó. Biotzeko...

-3-
Levantarme enseguida al ikullu marché yo con ojos de bixigu triste como hablando mirar hizó echaba unos suspiriyuas de muy adentro se le salió. Biotzeko...

-4-
Estirar luego la pata como arrikoskorras se endureció y yo con mucha pena le dije: Asto gaxua adiós. Hacer un abujero grande y tierra encima le puse yo. Biotzeko...

OTORDURAKO, BAZKARI GOXO-GOXOA

Askotan aipatu dugu; dagoeneko jakingo duzue zein zen igande eta jai egunetako bazkaria. “Asteazken zehar babarrun gorria eta

jai egunetan, babarrun zuria edo garbantzua”. Makarroiak edo arroza kontu berriagoak dira. “Orduan prestatzen zen bezala,

Maritxuk, “Otxandola eta Artatoloxa baserrietako bi emakumek, meza eta gero, Amallun hamaiketako egiteko ohitura zuten. Gero, Otsabitik barrena joaten ziren oinez etxera. Ordu bata jo arte-edo, konbertsazioan egoten ziren haiek. Ez ziren asko izango baina, bi haiek behintzat bai”.

Bertso haiek gustukoak zituela adierazi du Maritxuk, “astoa gaizki eta oso bertso politik dira horiek”. Pellok gizon hura oso xeblea zela aipatu du eta, “garai bateko bertsolariak denak zituan xebleak. Bertsoaren aitzakian etxetik atera eta astelehenean itzuli behar bazuen, asteazkenean edo ostegunean etxeratzen baziren... , gustura! Denak parranderoak”, gehitu du Joxek. “Telebistarik ez zen eta, bazkal ondorenean eta lagunartean abesteko egokiak ziren bertso haiek. Lehengo bertso zaharrak politik ziren, ederrak”. *Markesaren alaba* eta Iztuetak idatzitako bertsoak dituzte gogoan bereziki.

Maritxuk harategian bertsoak nola abesten zituen aipatu du, “Antton Lertxundik, harategira joaten ginenean, Juanitari eta bioi bertsoak kantatzeko eskatzen zigun”. Bertso-paperak bertsoak ikasteko bide bakarrenetakoak ziren garai hartan, “genekizkien kantatu ia gehienak gaztelaniaz erakutsi zizkiguten orduan”.

Hara hemen lehentxeago aipatu ditugun astoaren bertsoak:



Pello Iribar

“Orain sagarrak onenak parean jarrita ere, inor ez litzateke sagarrak jatera joango... Akabo!”

hura? “Haragia, urdaia, txongoa, hirugi-harra eta txorizoa... ahal bazen, osagai horiek denak sartzen zitzaizkion eltzeari”. “Garbantzua eltzeko haragiarekin egosten zenean, zopa ederra egiten zen gero salda harekin. Saldari oso zapore goxoa ematen baitio garbantzuak”. Jai handietan garbantzua eta haragia batera jaten ziren, baina bestela, egosi eta gero, berezi egiten zituzten; batetik garbantzua eta bestetik haragia. “Garbantzuari tomatea botatzen genion zaporea bizitzeko. Haragi egosia ere tomatearekin jaten genuen gehienetan”. Postre-rako sagar erreak prestatzen zituzten

askotan, “batzuetan baita ahia ere. Esnea eta ogi-irinarekin egiten zen” azaldu du Maritxuk. “Arroz esnea jai egun handietarako izaten zen”. Postreak ez ziren egun bezalakoak, “egun otorduro izaten da postrea, orduan, ahal zenean. Bertako fruta zen garaian, sagarrak-edo, bai gustura”. Sagarren garaia noiz iritsiko zain egoten ziren. “Orduan baserrietara koarilaka joaten ziren mutil kokkorak sagar-lapurretara. Beti izaten zen aurretik *kabezillaren* bat: ‘orain! korri, goazen! Orain sagarrak onenak parean jarrita ere, inor ez litzateke sagarrak jatera joango... Akabo!’”. Sagar mordoak hartzen omen zuten, “askotan erdi gordinak, heldugabeak ere bai” eta kolkoan sartuta gustura itzultzen ziren. Pepitak pasadizo polita ekarri du mahaira, “etxeok siestara joaten zirenean, gu sagarrak jatera! Berriro elkartzean, ‘gaur ere sagastian izan zarete’ haiek, eta guk ezetz. Sagar mota ezberdinak genituen baina, iraila iritsi arte ez geneukan sagar gezarik jateko baimenik; ordura arte ez baitziren heltzen. Gu halako inozenteak, sagastira joan eta sagar gezak jaten genituen, sagar heldugabeek aho ingurua hori-hori

eginda uzten dutela jabetu gabe. Etxekoek berehala igartzen zuten, noski”.

Ardoa egun berezi-berezietako bazkarietan soilik edaten zuten. “Ardoa gutxitan aterako zen mahaira, ondo gordeta izaten zen”. Gainerakoan, pitarra gehienetan, “lehen sagarrarekin egindako sagardoari deitzen zitzaion pitarra. Aurreneko sagardoari. Hari ur dezente botatzen zitzaion. Gero, barrika hasi eta sagardo ona izaten zen hasieran, baina, barrika jaisten ari zen heinean, gazitu egiten zen sagardo. Ura botatzen zitzaion gozatzeko. Huraxe zen pitarra”.



Sagar helduberrien uzta goxoa.

ABELLANAK, GAZTETXOEN GOZAGARRI

Samartiñetan nahiz Santiotan, barkillo, goxoki nahiz izozki saltzaile ugari gerturatzen zen Amasa eta Villabonara. Festetan ez ezik, Villabonara igandero etortzen ziren saltzaile preziatuak. Jakina, haurrak eta gaztetxoak bereziki, gustura baino gusturago. “Barkilleroa, karameleroa, heladeroa... saltzaile ugari etortzen zen. Tolosatik Petra semearekin gerturatzen zen barkilloak saltzera. Gustura egoten ginen barkillo hura jateko, e?” gogoratu du Maritxuk. “Gustura ez dakit baina, zain bai” erantzun Joxek. Erruletan jolasten zuten aurrena, “ateratzen zen zenbakiaren arabera, barkillo gehiago, gutxiago edo batera ez zitzaigun egokitzen”. Abellanoak eta karameleroak saskiarekin ibiltzen ziren. “Abellanak eta karameluak saltzen zituzten. Piruli haiek bai gozoak, gogoratzen?”. Karameluak gogoko zituzten baina, abellanak oraindik eta gogokoago; “abella-



Barkilleroek antzeko erruleta erabiltzen zuten zozketa egiteko

neroak aluminiozko poto bat izaten zuten, neurrikoa, abellanak edo hurrak saltzeko. Eskuan hartu eta patrikara sartzen genituen. Karameluak eta barkilloak baino merkeagoak ziren eta gainera, abellanak janez gehiago entretenitzen ginen; eserita jarrita janez”. Erroskilak ere saltzen ziren jai egu-

netan, Inaxio Beñaranen aita ibiltzen zen festarik festa erroskilak saltzen.

Aitonak ilobei goxokiak erosteko ohitura bazen orduan. “Ahal zuenak, kalera etorritakoan erosten zituen gozoak”. Pepitak ondo gogoan du Arrieta baserriko aitona kalera etortzen zenean, etxerakoan kokozko gailetan luxeak eramaten zituela. “Gu umeak, ateraino aterata egoten ginen haren zain”. Maria Luisak, gogoan du aitona nola olibak erosten zizkieten ilobei. “Aitona igande eguerdian tabernara joaten zenean, azeituna beltzak ekartzen zizkigun batzuetan. Gure amak ere, merkatutik ekarri izan zituen. Mikatzak ziren, gogoan dut oraindik zapore hura”. Maritxuk lehenengo aldiz azeituna probatu zuenean bota egin omen zuten, “Andoaingo tabernan probatu nuen eta ez zitzaidan gustatu. Diximuluan bota nuen”.

DENAK ZINEMARA!

Zentro parrokiara zegoen horretan, tabernaz gain taulatua ere bazegoen. Jai egunetan antzezlanak eskaintzen zituzten herriko

gazteek. Oharretxena musikari handiak pianoa ere jotzen zuen tarteka. Pelikularik apenas botatzen zuten han baina, taldeki-

deak ume ziren garaian, ikusten zituzten tarteka filmak, “gu umeak ginela, on Epi-fanio apaizak botatzen zizkigun pelikulak.

Zinema Kale Nagusian izaten zen orduan. Egun lore-denda dagoen inguru horretan bazen gela bat eta hantxe biltzen ginen herriko umeak. Mairidire zuri batean ikusten genituen pelikula mutuak”. Gero-ra, 1947 urte inguruan zabaldu zen Gurea zinema, “bota zuten aurreneko pelikula, Gunga Din izan zen”, George Stevens-ena. Solaskide ia guztiak ikusi bazuten ere, ez dira bat etortzen lantzen zen gaia zehazterakoan; hala ere, gogoan dituzte filmeko gerrateko irudiak. “Pelikulan zehar, asto zuri bat agertzen zen gerrako materiala eramaten. Amasar asko zegoen zineman eta norbaitek broman, ‘Hara, Uxamendiko astoa!’ esan zuen ozen. Uxamendiko asto zuria etorriko zitzaion bururo. Algara ederrak entzun ziren zineman”. Hogei urte inguru zituzten solaskideek orduan. Zinema igandero zabalitzen zuten arratsaldeko 17:00etan eta ahal zuten emanaldi guztietara joaten ziren taldekideak, “bazkaldu, sukaldeko lanak korrika batean egin eta bost senide joaten ginen zinemara” gogo-



Garai bateko Gurea zinema, egungo leku berean.

ratu du Pepitak. Maria Luisak ere ez zuen plan txarra egiten; “aurrena kafea hartu, gero zinemara joan eta lagun artean kartertan ibiltzen ginen azkenik. Dirurik ez zen baina, ondo moldatzen ginen”.

Eserleku eroso eta politak gogoratzen dituzte *lumanarrek*, “bigarren solairuko aurrealdean esertzen ahalegintzen ginen”, azaldu dute Maritxuk eta Maria Luisak. Orduko gazte gehienentzat ere toki hura zen gogokoena; ez dira horrenbeste aldatzen gustuak, ezta? Igandero txartela erosi behar-rean, hilabeteko txartela erosi zitekeen. Modu horretan, merkexego ateratzen zen sarrera.

On Jesus medikua ere zinemara joaten zen igandero, “baina, guardian bezala hura, e? Hura ez zen berehalakoan herriatik aterako! Jendea igande arratsalde behartuz gero, jakina zen non aurkitu”. Sendagilea ez zen bakarrik joaten, laguntzailea ere izaten zuen; “atzeko pasabidean, aulkian eserita, sendagilea eta apaiza egoten ziren. Pelikula bukatu eta argiak pizterako ateratzen ziren, inork ez ikusteko-edo”.

Zinema zabaldu aurretik, Periodistanean egoten zen medikua; igande eguerdi nahiz arratsalde. “Hantxe guardian, eserita jarri eta periodikoa leituz. Jendeak bazekien non aurkituko zuten zerbait gertatuz gero”. Urte guztian zehar ez omen zen herriatik ateratzen. Hala ere, bazuen galdu ezineko irteera bat, “urtean behin Iruñeako San Ferminetara alde egiten zuen herriatik. Hark bazekien, bai...”, esan du Joxek.



Gunga Din filmeko kartela.

Alonsotarrek zuten zinemaren ardura orduan ere, “guk beti familia bera ezagutu dugu zinemaren arduradun. Zinemara berandu iristen zirenei laguntzeko bi langile ere baziren; ‘linterna txiki batekin laguntzen ziguten eserlekua aurkitzen’. Gozokirik gabe joaten ziren zinemara, ‘gu pelikula ikustera joaten ginen, ez gozoko jatera”.

Pelikula bota aurretik, ‘nodo’ a botatzen zuten, “erreportaje modukoa zen. Garai hartan Francoren kontuak izaten ziren. Pelikularen aurretik obligazioa zen hura ikustea. Bost bat minutu irauten zuen”.

DANTZALDIK ETA BESTELAKO JAI EGUNAK

Zinema zabaldu zutenerako, plazako igandero musikak emanaldia kolokan zegoen. Zinema zabaldu aurretik ez zuten hutsik egiten herriko musika bandak eta txistulariek eskaintzen zuten dantzaldira. *Lumane* aldizkariaren lehenengo zenbakian ‘Jai egunetako dantzaldiak’ izenburupean zehatz-mehatz ageri da garai haren berri, zarpigarren orrialdean.

Igandeaz gain, elizak jarritako jai egunak gaur baino ugariagoak ziren orduan. Hizlariek jai egun haiek lanegun bihurtzea pena dela uste dute. “Lehen, beste santu egun batzuen artean, San Juan eguna jai izaten zen leku guztietan”. Gainerakoan, lantokiek jai egun bat zuten, “fabrika edo langintza bakoitzaren santua egokitzen zenean, hain zuzen”. Batzuek bazkariarekin ospatzen zuten, besteek hamaiketakoarekin..., mokadurik gabe ere izaten zen ospakizunik kasuren batean.



Herriko musika bandako kideak 1954 urtean.

Antzinako jai egunetako ohituren artean, era guztietako pasarteak ekarri dituzte mahaira gaurkoan ere. Urteak aurrera egin arren, umorea bizi-bizirik mantentzea..., hori bai gauza ederra!



Maritxu
Gonzalez



Joxe
Ugartemendia



Maria Luisa
Zalakain



Pello
Iribar



Pepita
Lasas



Pako
Etxenike

UTZIKO AL DIZKIGUZU ERRETRATU ZAHARRAK?


Bi zenbaki besterik ez dira falta 20 zenbakiko bildumarekin amaitzeko. Argitalpenarekin hasi ginenetik, erretratu zahar mordoak bildu dugu eta egitasmoari liburu mardul batekin eman nahi diogu amaiera. Liburuak Amasako eta Villabonako erretratu zaharrak bilduko ditu bereziki, baina narrazioak ere bere pisua izango du.

Ba al duzu etxean liburuan argitaratuta ikusi nahiko zenukeen argazki zaharrak? Hala bada, jar zaitez gurekin harremanetan. Bulego berria izango dugu aurrerantzean; Karidade enea etxean aurkituko gaituzue Zizurkilgo Bulandegi bidean.

Goizeko 10:00etatik 13:00era jasoko ditugu argazkiak. Etorri aurretik, dei ezazue mesedez 943 696 450 telefono zenbakira.

...ETA HURRENGOAN

Bukatzen ari gara; bi zenbaki besterik ez zaizkigu falta bildumari azken puntua jartzeko. Gai ezberdinak mahaira ekarri, Amasa-Villabonako kontu mordoak bildu dugu... Zenbat izen, zenbat pasarte, zenbat bizipen... A ze errepassoa! Gaiak, umore ukituari eutsiz lantzen saiatu gara. Azken bi zenbaki hauek, ordea, bestelakoak izango dira. Garai gogorretara joko dugu, ez baitugu bilduma 36ko gerraz hitz egin gabe amaitu nahi. Gerrate anker hura lehen pertsonan bizi izan zutenen ahotik jakingo dugu Gerra Zibilak Amasa-Villabonan izan zuen eraginaren beri. Badago zeresana... Ez ezazue hutsik egin!



ARGITARATZAILEAK



Amasa-Villabonako
Udala



Manuel Larramendi
Kultur B. azkuna

Argitaratzaileak: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna, Amasa-Villabonako Udalaren dirulaguntzaz. Ekoizlea: Erroitz B.M. Zuzendaritza eta erredakzioa: Ainhoa Arozena. Maketazioa: Maddi Trutxuelo. Argazkiak: Xabi Ubeda, Erretratu zaharren liburua (Larramendi Bazkuna) eta artxibo ezberdinak. Inprimaketa: Sortu grafikak (Zizurkil). ISSN: 1698-7330. Lege gordailua: SS-1289/04. Tirada: 1.400 ale.

EKOIZLEA



BABESLEA



Eusko Jaurlaritza
KULTURA SAILA